


GRADU AMAIERAKO LANAREN GIDA



TITULAZIOA: PSIKOLOGIAKO GRADUA

IRASTEGIA: PSIKOLOGIA FAKULTATEA

IRAKASGAIAREN GIDA

1. Irakasgaiaren oinarrizko datuak

IZENA: Gradu Amaierako Lana (GrAL)

KODEA: 25104

IRAKASGAI MOTA = Y

(D=adarreko oinarrizkoa; S=beste adar batzuetako oinarrizkoa; Y=gradu amaierako proiektua; O=nahitaezkoa edo P=hautazkoa)

ECTS kredituak: 6

MAILA: 4.a

LAUHILEKOA: 2.a

Aurrebaldintzak: GrAL-aren gaia eta tutorea esleitzeko, beharrezkoa da 162 kreditu gaindituta izatea hautaketa egiteko unean.

Matrikulatu eta GrAL defendatu ahal izateko, beharrezkoa da ikasleak derrigorrezko praktikak baino ez, eta beste irakasgai batzuetako 12 kreditu gehienez egiteke izatea.

2. Irakasle tutorea

Gradu amaierako lanaren zuzendaria edo tutorea izango da graduan eskolak irakasten dituen sail bateko irakasle bat edo gradua irakasten deneko ikastegiari atxikitako bat. Azpimarratu behar da gure irakasle eta ikertzaileen ardura dela GRALak tutorizatzea, graduko beste irakasgai bat baita. Pertsona batek baino gehiagok zuzen dezake GRAL. Unibertsitateari lotutako doktoreek ere zuzendu ahal izango dituzte GRALak, bai eta doktorego aurreko kontratua duen pertsonalak ere, kontratuak horretarako aukera ematen badu.

3. Irakasgaiaren gaitasun zehatzak eta zeharkakoak

Gaitasunaren
n
zenbakia

Gaitasunak

1

Psikologiaren eredu teorikoak ezagutzea hautatutako gaien, eta haren ekarpenak eta mugak kritikoki balioesteko gai izatea.

2

Gizakiaren substratu psikologikoa osatzen duten elementuak identifikatzeko eta sartzeko gai izatea.

3	Ebaluazioa egiteko datu garrantzitsuak neurtzeko eta lortzeko gai izatea, datu kuantitatiboak edota kualitatiboak aztertzeko gai izatea, eta landutako gaiaren emaitzak interpretatzeko eta txosten tekniko bat egiteko gai izatea, ahoz edota idatziz aurkezteko.
4	Ikergaiaren testuinguruan agertzen diren banakako, taldeko eta taldeen arteko aldeak, arazoak eta beharrak identifikatzeko gai izatea.
5	Landutako gaiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertzeko eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.
6	Psikologoaren jarduera profesionala arautzen duen lege-esparrua ezagutzea eta printzipio etikoak eta deontologia-kodea aplikatzeko gai izatea.
7	Psikologiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, aztertzeko eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.
8	Maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan modu eraginkorrean erlazionatzea eta komunikatzea, eta banaka nahiz diziplina bakarreko zein anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea, ardurak hartuz eta jarduerak modu kritikoan baloratuz.
9	Modu autonomoan ikasteko eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzia baloratzeko gai izatea, lanbidearen mesederako diren gaitasunak eta ezagutzak eguneratzeko, eta ezagutza psikologikoari ekarpena egiteko.

4. Gradu Amaierako Lanaren prozesua

1. Ikasleek GrALerako gaia eta tutorearen eskakizuna egitea.
2. Tutorea eta gaia esleitzea.
3. Ikaslea tutorearekin harremanetan jartzea, prozesua abiatzeko.
4. Ikasleak tutorea edota GrAL mota edo gaia aldatzeko eskaketa.
5. Ikaslearen eskaria ebaztea.
6. Ikasleak GrALa matrikulatzea, betiere araudian ezarritako baldintzak betetzen badira.
7. Ikasleak GAUREn GrALa defendatzeko eskaria egitea eta tutoreak oniritzia ematea.
8. GrALa eta aurkezpena psikologia@ehu.eus helbidera bidaltzea ezarritako epeetan.
9. Ikasleak GrALa aurkeztea eta defendatzea, eta epaimahaiak dagokion ebaluazioa egitea.

5. Gradu Amaierako Lanaren lanketa

Arau orokorrak:

- GrALaren txostenak 20 orrialde izango ditu gehienez (azala, aurkibidea, laburpena, hitz-gakoak, GIHak, erreferentziak eta eranskinak kanpo). Erreferentzien ondoren, beharrezkotzat jotzen diren eranskinak (taulak, grafikoak eta abar) gehituko dira.
- DIN A4 formatuan idatziko da, 2,5 cm-ko marjinekin eta 1,5eko lerro-tarteekin, eta letraren tamaina 12koa izango da Times New Roman edo Arial.
- Txostenak kontuan hartu behar ditu APA erakundearen argitalpen-arauak (*Publication Manual of the American Psychological Association*, 7. edizioa, ikusi web orria), GrAL aurkezten den hizkuntza edozein izanik ere. Erabilitako erreferentzien kudeaketa egiteko programaren bat erabiltzea gomendatzen da (adibidez, Mendeley <https://www.mendeley.com/guides/desktop>).
- Lehen orrialdean, lanaren izenburua eta ikaslearen izen-deiturak idatziko dira. Aurkibideak lanaren atal guztiak jasoko ditu, baita irudi eta taula guztiak ere. Hasteko, laburpen bat egingo da, 200 hitzekoa gehien jota, eta hitz gakoak (gehienez 5) azalduko dira, hauek guztiak soilik GrALa egingo den hizkuntzan. Gainera, printzipio eta balio demokratikoen eta Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) argitan egindako lanari buruzko gogoeta egingo da. Hausnarketa horrek, gutxienez, 200 hitz izango ditu, laneko testuaren atal espezifiko gisa txertatuta (ikus helburuen zerrenda osoa ondorengo estekan <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>).
- Gradu Amaierako Lanaren bi modalitate daude:
 - 1) Practicumari lotutako lan bat, non oinarritu beharko baitira teorikoki eta metodologikoki, practicumean zehar egindako jardueren eta erabilitako teknikak, bai eta egindako jardueren balorazio kritikoa ere, landutako eremuan hobekuntzak proposatuz eta/edo esku hartzeko programa bat diseinatuz.
 - 2) Irakasleek eskainitako gaikako aukeren zerrenda batean oinarrituta egindako lana, egindako practicumarekin loturarik ez duena. Lana hainbat planteamenduetatik egin ahal izango da, hala nola ikerkuntza, garapen eta/edo berrikuntza proiektuetatik edo gai jakin bati buruzko berrikuspen eta eguneratze teoriko eta/edo metodologikotatik (adibidez, kasuan kasuko egoeraren analisia, berrikuspen narratiboak, sistematikoak edo irismenekoak).

Ez da beharrezkoa izango lanaren modalitatea adieraztea, baina hau erraz identifikatu ahalko da lanaren izenburuan eta/edo laburpenean.

6. Gradu Amaierako Lana aurkeztea eta defendatzea

GRAL amaitu ondoren, ikasleak, alde batetik, GAUR bidez, eskatu beharko du ikastegiak aurreikusitako deialdiren batean defendatzeko eta, beste alde batetik, GRALeko batzordeko arduradunari bidali beharko dio, posta elektronikoaren bidez (psikologia@ehu.eus), GRALaren kopia bat eta defentsarako aurkezpenaren kopia bat (biak PDF fitxategi gisa). Hori guztia telematikoki egingo da, ez bestela, paperezko alerik emango ez delarik.

GRAL ahoz defendatu beharko da horretarako izendatutako IRiko hiru kidek osatutako epaimahai baten aurrean. Ikaslearen tutorea ez da egongo epaimahaian.

Ikasleak power point erako aurkezpen baten bidez aurkeztuko du lana, non azalduko baititu GRALaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak. Power point aurkezpena 3 eta 7 diapositiba artean izango da luze. Ikasleak 5 bat minutu inguru izango ditu aurkezpena egiteko. Aurkezpena amaitutakoan, epaimahaiak egoki lertitokeen galderak, argibideak, iruzkinak eta iradokizunak egingo ditu egindako lanari buruz.

7. Gradu Amaierako Lanarenaren ebaluazioa

Gradu Amaierako Lanaren amaierako ebaluazioan, kontuan hartuko dira lan prozesua eta aurkeztutako azken txostena (% 60), haren aurkezpena eta ahozko defentsa (% 40). Zehazki, honako errubrika hauetan izandako lorpen mailan oinarrituz egingo da ebaluazioa:

Lan prozesua eta azken txostena (%60)

- 1.- Helburuak jarri, lana planifikatu, eta denboran egoki garatzen du.
- 2.- Gai da informazio egokia bilatu, lortu eta hautatzeko, espezializatutako informazio iturrietatik abiatuta.
- 3.- Lanak dituen elementuak era ordenatuan aurkezten ditu, ideiak argitasunez adieraziz, eta testua irakurri eta ulertzea ahalbidetzen duen hizkera erabiliz.
- 4.- Lanak aztergai duen objektua argitasunez identifikatu, definitu eta dagokion testuinguruan jartzen du, graduako prestakuntzan lortutako elementuak erabiliz eta betiere psikologiako jakintza arlo desberdinetatik eginda.
- 5.- Metodologia egokia erabiltzen du proposatutako helburuei begira, eta zuzen aurkezten ditu emaitzak.
- 6.- Aurkeztutako ereduak, egindako jardueren eta/edo lanean lortutako emaitzen balorazio kritikoa egiten du, eta ideia originalak, praktikoak eta berritzaileak proposatzen ditu.

Defentsa (%40)

- 1.- Posterra egoki eta egituratuta aurkezten da, GrALaren elementu nagusiak jasoz.
- 2.- Egokiak izan eta lana ongi ulertzea ahalbidetzen duten grafikoak erabili dira.
- 3.- Konklusioak alderdi nagusiak jasotzen ditu. (behar izanez gero)
- 4.- Aurkezpena orijinala eta sortzailea da. (behar izanez gero)
- 5.- Lanak dituen elementuak era ordenatuan aurkezten ditu, ideiak argi eta garbi adieraziz, eta hizkera egokia erabiliz.
- 6.- Ondo laburtzen du informazio garrantzitsuena, lanaren azalpena ezarritako denborara egokituz.
- 7.- Ongi ulertu eta modu egokian erantzuten die epaimahaiaren galderei.

Ikasleak bere azalpenak eman ondoren, eta tutoreak egindako txostena ikusi ondoren, epaimahaiak dagokion nota jarriko du. Tituluko gainerako irakasgaietan bezalaxe, GrALaren kalifikazioak honako hauek izan daitezke: gutxiegi (0-4,9), nahikoa (5-6,9), oso ongi (7-8,9) edota bikain (9-10).

GrAL Batzordeak ohorezko matrikula eman ahal izango die 10ko kalifikazioa lortu duten ikasleei, dagokion epaimahaiak horretarako proposamena egin ondoren.

Ikasleak gutxiegi atera badu, lana hobetzeko gomendioak biltzen dituen txostena helaraziko dio epaimahaiak, ebaluazioa berriro egiteko. Tutoreari txosten horren kopia bat bidaliko zaio.

8. Dokumentazioa

American Psychological Association (2020). *Publication manual of the American Psychological Association* (7th ed.). Washington: American Psychological Association.

Kode deontologikoa:

<https://www.cop.es/index.php?page=CodigoDeontologico>

Etika baztordea ikerketa egiteko (UPV/EHU):

<https://www.ehu.eus/eu/web/ceid/ceish/comite>

Gradu amaierako lana egiteari eta defendatzeari buruzko arautegia (UPV/EHU):

<https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduakoikasketak/gradu-amaierako-lana-egin-eta-defendatzeari-buruzko-arautegia>

9. Tutoretzen ordutegia

Tutoretzen ordutegia kontsultatzeko begiratu GAUR